

JARDUERA-PLANA

(22. ASTETIK IKASTURTE AMAIERARA)

KALKULUA

(25971)

INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA
INDUSTRIA KIMIKARENINGENIARITZAKO GRADUA
INDUSTRIA ELEKTRONIKAREN ETA AUTOMATIKAREN
INGENIARITZAKO GRADUA
INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA
+ EAZ

2020/04/17

Irakasgaiaren koordinatzailea
M^a Soledad Pinedo Zuaza

AURKIBIDEA

1. Eduki teoriko-praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohiko deialdia: orientabideak

1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Aste hauetan garatuko diren eduki teoriko eta praktikoak hauek dira:

7.gai Aldagai anitzeko funtzioen integrazioa.

Gaiaren azken zatia: aplikazioak eta azken ariketak.

8.gai Ekuazio diferentzial arruntak

9.gai Laplace-ren transformatua

10. gai Fourier-en serieak (EZ)

2. METODOLOGIA

Irakasgaiak klase magistralak (astero 3h) eta gelako Praktiak (astero ordu 1) ditu.

2.1. IKASGELAKO KLASE MAGISTRALAK ETA PRAKTIKOAK

Klase magistralak eta gelako praktikak Blackboard Collaborate tresnarekin garatuko dira, ohiko ordutegian. Jarduera hauetan dokumentu honen 1. Atalean jasotako eduki teoriko-praktikoak landuko dira.

01 Taldea :

- Astelehena 12 - 13 (Magistrala)
- Asteartea 9 - 10 (Magistrala)
- Asteartea 13 - 14 (Gelako Praktika)
- Asteazkena 11 -12(Magistrala)

02 Taldea:

- Asteartea 11 - 12 (Magistrala)
- Asteazkena 9 - 10 (Magistrala)
- Osteguna 9 - 10 (Magistrala)
- Osteguna 10 - 11 (Gelako Praktika)

31A Taldea :

- Astelehena 10 - 11 (Magistrala)
- Astelehena 11 - 12 (Gelako Praktika)
- Asteartea 9 - 10 (Magistrala)
- Asteazkena 11 - 12 (Magistrala)

31B Taldea

- Astelehena 10 - 11 (Magistrala)
- Astelehena 11 - 12 (Gelako Praktika)
- Asteartea 9 - 10 (Magistrala)
- Asteazkena 11 - 12 (Magistrala)

2.2 MINTEGIAK

Irakasgai honek ez du mintegirik.

2.3 LABORATEGIKO PRAKTIKAK ETA ORDENAGAILUKO PRAKTIKAK

Irakasgai honek ez du laborategiko praktika ezta Ordenagailuko praktika.

3. EBALUAZIO-SISTEMAK

Irakaskuntza-gidan dagoen ebaluazioa mantenduko da

Ebaluazio jarraituan, emandako ehunekoak hauek dira:

- %20: Eskola orduetan egindako jarduerak, talde lanak (presentzialak edo online) eta lan ez presentziala (etxeako).
- %80: Banakako idatzizko azterketak.

Azken ebaluazioaren sisteman, azken azterketak notaren %100 a izango da.

4. OHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEAK

EBALUAZIO JARRAITUA

Ebaluazio jarraituaren sisteman, hasierako irakaskuntza-gidan notaren %80 a idatzizko lau edo bost banakako azterketen bidez lortzen da eta gauden egoeran hurrengoak izango dira:

- Lehenengo bi azterketak, lehenengo lauhilekoan egindakoak, nota totalaren %40 suposatzen dute.
- Hirugarren azterketan 6, 7 eta 8 gaiak ebaluatuko dira eta nota totalaren %35 suposatzen du. Azterketa hau maiatzaren 4an egingo da goizeko 8:00tan hasiz eta online formatuan **(*) (**)**.
- Laugarren azterketan 9. gaia ebaluatuko da eta nota totalaren %5 suposatzen du. Irakasgaiaren azken klasean egingo da azterketa hau, maiatzaren 13an eta online formatuan

Hirugarren eta laugarren azterketetara matrikulatutako ikasle guztiak presentatu daitezke, nahiz eta ebaluazio jarraituari uko egin.

Ikasle guztiek 2. Lauhileko materia eliminatu dezakete, ikasleak nahi badu, hirugarren eta laugarren azterketen kalifikazioen batezbesteko haztatua (10 puntutik) 4 puntu baino handiagoa bada.

Irakasgaiko beste kalifikazioekin batuz batezbestekoa egingo da ikaslearen kalifikazioak (10 puntutik) 4 puntu baino handiagoa bada hurrengo kalifikazioetan: lehenengo lauhileko nota alde batetik eta hirugarren eta laugarren azterketen kalifikazioen batezbesteko haztatua beste aldetik. Bi baldintza hauek betetzen badira, kurtso osoko kalifikazio guztien batezbesteko haztatua, gelako praktikak kontutan hartuz, (10 puntutik) 5 puntu baino gehiagokoa bada, **irakasgaia gainditutzat hartuko da**. Bestelako kasuan 5. azterketan ikasleak gainditu ez dituen atalak (lauhileko osotan) errekuiperatuko ditu.

Bosgarren azterketa, ohiko deialdiko datarekin bat datorrena (maiatzaren 28a), bi ataletan zatituko da, biak online formatuan **(*)(**)**:

- Lehenengo atalean 1. lauhileko edukiak ebaluatuko dira (1, 2, 3, 4, 5 gaiak) eta kalifikazioaren %40a suposatuko du.
- Bigarren atalean 2. Lauhileko edukiak ebaluatuko dira (6, 7, 8, 9 gaiak)) eta kalifikazioaren %40a suposatuko du.

Osoko kalifikazio guztien batezbesteko haztatua, gelako praktikak kontutan hartuz, (10 puntutik) 5 puntu baino gehiagokoa bada, **irakasgaia gainditutzat hartuko da**.

AZKEN EBALUAZIOA

Ebaluazio jarraituari uko egitearen epea luzatzen da, maiatzaren 25a arte. Dokumentua beteta irakasgaiaren irakasleari bidali behar da epe barruan.

Azken ebaluazioa, ohiko deialdiaren datan izango da, maiatzaren 28an. Azken froga atal desberdinetan banandurik egongo da, denak online formatuan **(*)(**)**:

- Lehenengo atalean 1. lauhileko edukiak ebaluatuko dira (1, 2, 3, 4, 5 gaiak) eta kalifikazioaren %40a suposatuko du.
- Bigarren atalean 2. Lauhileko edukiak ebaluatuko dira (6, 7, 8, 9 gaiak) eta kalifikazioaren %40a suposatuko du.
- Hirugarren atalean kurtsoan zehar landutako gaitasunak eta oinarrizko kontzeptuak ebaluatuko dira eta kalifikazioaren %20a suposatuko du.

DEIALDIARI UKO EGITEA

Bi ebaluazio-sistemetan, aurreko frogetan gaintitu ez duten ikasleak, azken proba idatzira ez aurkezteak kalifikazioan "Ez aurkeztua" lortzea suposatzen du, nahiz eta kurtsoan zehar planteatutako lanetan parte hartu izana.

(*) Arazoren bat badute ikasleek azterketa jarraitzeko, irakaslearekin kontaktuan jarriko da lehenbailehen.

()**Ikasleren batek konexio arazoren bat badu frogak gertatu bitartean, telefono zenbaki bat eskura izango du lehenbailehen arazoaren berri emateko (945 013261) eta arazoaren frogak (argazkiak, pantaila-irudiak...) eskuratu beharko ditu.

Gogoan izan, ikasleek ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloa jarraitu behar dituztela.

<https://www.ehu.eus/documents/2100129/0/6.-+b%29+Protocolo+plagio+cas+-+pdf/11f13960-d46a-cf5a-ac13-ebfb5ad10acd>

ERANSKINA

Frogak online formatuan

Online frogak eGela plataforma erabiliz izango dira. Irakasleek egindako galdetegi batetik zenbait galdera/problema planteatuko dira, guztiak zailtasuna berdinarekin. Galdera batzuk **aukera anitz** motako galdera izan daitezke, edo **lotu** motakoak, edo **egia gezurra** motakoak edo **entsegua** motakoak.

Dena den, kasu askotan papera eta boligrafoa erabili beharko dugu problema ebazteko eta erantzun zuzena aukeratzeko. **entsegua** motako galderetan dokumentu bat ariketarekin igo behar dugu.

Arazo teknikoak

Arazoren bat badute ikasleek azterketa jarraitzeko, irakaslearekin kontaktuan jarriko da lehenbailehen.

Ikasleren batek konexio arazoren bat badu **frogak gertatu bitartean**, telefono zenbaki bat eskura izango du lehenbailehen arazoaren berri emateko (945 013261) eta arazoaren frogak (argazkiak, pantalla-irudiak...) eskuratu beharko ditu.

OHARRA

Formatua online honetan lehenengo froga ofiziala egin baino lehen, adibide bat egingo dugu klasean sistema ezagutzeko.